



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Plentziako Udala

Araupeko Aparkaldiari buruzko Udal Zerbitzuaren Ordenantza

Udal honetako Udaltzaren, 2024ko maiatzaren 30ean egindako ohiko bilkuran, gehiengo osoz ebatzi ditu Araupeko Aparkaldiaren Ordenantza behin-behingo onartu ondoren irekitako jendurreko aldiaren aurkeztutako alegazioak, eta, horrela, behin betiko onartu du alegazioak ebaztetik eratorritako aldaketak sartu osteko testua.

Horiek horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa betetzeko, argitara bedi Ordenantza horren testu osoa.

Plentzian, 2024ko maiatzaren 4an.—Jarduneko alkatea. Mercedes Etxegarai Urrutia



ARAUPEKO APARKALDIARI BURUZKO UDAL-ZERBITZUAREN ORDENANTZA ZIOEN AZALPENA

Plentziako Udalak, bere autonomia erabiliz eta trafikoaren eta aparkamenduaren kudeaketa eraginkorra sustatzeko asmoz, Araupeko Aparkaldiaren Udal Zerbitzuaren Ordenantza hau aurkezten du. Gauza jakina da handitu egin direla, batetik, ibilgailuen parkea, eta, bestetik, herriak urtean zehar izaten duen bisitari-fluxua, eta hazkunde horren ondorioz sortu diren erronkei aurre egin behar zaiela, batez ere udako hiletan; izan ere, sasoi horretan udalerrian dagoen biztanleria hirukoiztu egiten da, eta, zer esanik ez, Plentziara eguna igarotzera etortzen diren pertsonak.

Udalerrian egungo egoerak argi eta garbi erakusten du alde handia dagoela aparkalekuen eskaintzaren (700 inguru) eta erregistratutako ibilgailuen kopuruaren artean (2.000 ibilgailu baino gehiago). Desoreka horrek bideak nabarmen buxatzeaz gain, egoiliarren bizi-kalitatea murriztu ere egiten du, eta horrek eragin negatiboa du hiriko mugikortasunean eta ingurumenean.

Arazo horri ikuspegi integral batetik heltzeko beharraz jabetuta, ordenantza honen helburua ez da soilik aparkaldiak eskaeraren eta espazioen erabilgarritasunaren arabera arautzea, baizik eta baita garraio publikoaren erabilera sustatzea ere, alternatiba bidegarri eta jasangarri gisa. Ildo horretan, mugikortasun-ohitura arduratsuagoak sustatu nahi dira, eta, horrela, gure ingurunean emisio kutsatzaileak murrizten eta airearen kalitatea hobetzen lagundu; hala jasotzen da, hain zuzen ere, Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko maiatzaren 20ko 7/2021 Legean, eta Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko otsailaren 8ko 1/2024 Legean.

Halaber, garrantzitsua da udalerrirako sarbide ekitatiboa bermatzea bertan bizi diren pertsona guztientzat, baita periferian bizi eta garraio publiko egokirik ez dutenentzat ere. Plentziako biztanleria osotik, 1.000 bizilagun periferian bizi dira. Horrek esan nahi du beharrezkoa dela aparkatzeko politika inklusibo eta ekitatiboa izatea, bizilagun guztien errealitate eta beharrak kontuan hartuko dituen. Beraz, ordenantza honek helburutzat du egoiliarren, bisitarien eta natur ingurunearen interesak bateratzea, betiere Plentziako udalerrian bizikidetzatza harmoniko eta jasangarria sustatuz.

1. artikulua

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 25.2.g) artikulua, eta urriaren 30eko Legegintzako 6/2015 Errege Dekretuak —Ibilgailu Motor-dunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duenak— trafiko eta zirkulazio-arloko eskumena ematen die udalei.

2. artikulua

Ordenantza honen helburua da trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea, eta, horretarako, mugatu egingo dira —espazioan eta denboran— 3.500 kg-ra arteko ibilgailuen mota edo kategoria guztien aparkaldiak. Ordenantza hau aplikatuko zaie ibilgailu partikular edo publikoei, ordenantzan aurreikusitako leku eta eremuetan aparkatzen dutenean. Udalerriko hainbat eremutan aparkatzeko eskaintzaren eta eskaeraren artean oreka handiagoa lortu nahi da, eta egoiliarrei, nahitaez, aparkalekuak gorde beharko zaizkie. Helburu hori betetzeko, hainbat jardun egingo dira aparkaldiak mugatu eta kontrolatzeko; eta inbertsioak ere egingo dira. Jardunok udalak egin ahal izango ditu zuzenean, edo, bestela, zerbitzua emateko kontratatutako enpresak.

Zenbait ibilgailu, adierazitako bide edo eremuetan aparkatzeko, salbuetsita egongo dira ordenantza hau betetzetik:

- Motorrak, ziklomotorrak eta bizikletak, baldin eta aparkaleku mugaturako seinaleztatutako plazak betetzen ez badituzte eta horretarako prestatutako lekuetara mugatzen badira.
- Erreserbatutako eremuetan aparkatutako ibilgailuak, baldin eta beren kategoria edo jarduerarako udal-baimena badute.



- c) Zamilan egiten ari diren merkataritza-ibilgailuak, horretarako esleitutako eremu eta ordutegietan bakarrik.
- d) Taxi-autoak, gidaria bertan eta zerbitzuan dagoenean.
- f) Larrialdietako ibilgailuak, anbulantziak, suhiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta Polizia, guztiak ere zerbitzua ematen ari direnean
- g) Gidaria edo bidaiariren bat barruan duten ibilgailu automobilak, betiere aparkaldia bost minututik beherakoa bada.
- h) Mugikortasun murriztua duten pertsonentzat egokitutako autoak, dagokien akreditazioarekin.

3. artikulua

Arautze honek berarekin dakar aparkaldiaren iraupena mugatzea, bai eta araupeko aparkaldia non aplikatuko den ere, betiere ordenantza honetan arautzen diren guneeetan eta ordutetan.

Ordenantzak era berean arautzen du gaitutako ibilgailuek bakarrik aparkatu ahal izango dutela aurrez zehaztutako ordu-tarte eta leku jakin batzuetan. Leku eta ordutegi horietan baimenduta daudenak (gune erreserbatua - egoiliarrek) TMIZeko udal-errolan sartutako ibilgailuak izango dira, baldin eta horien titularrak udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak badira edo, pertsona juridikoak izatekotan, helbide soziala udalerrian badute.

Salbuespen gisa, Plentziako herrigunean kokatutako lantokietako langileen jabetzako ibilgailuak baimendu ahal izango dira, betiere ordenantza honetan adierazitako beharrezko baldintzak betetzen badira.

4. artikulua

Salbuespen gisa, alkate-udalburuak aldi baterako aldatu edo bertan behera utzi ahal izango ditu Ordenantza honetan araututako aparkaldi-baldintzak, baldin eta trafikoan eta aparkalekuan eragina duten inguruabarrek hala gomendatzen badute.

Hori egitea gaitzen duten ebazpenak ezarri baino gutxienez 15 egun lehenago jarriko dira jendaurrean, Udaletxeko ediktu-oholean, web-orrian eta, gutxienez, probintzian gehien irakurtzen den egunkarietako batean.

5. artikulua

Aparkaldien mugak bi denbora-tartetan aplikatuko dira:

1. Udaberria-negua-udazkena: urte bateko irailaren 9tik hurrengo urteko ekainaren 30era arte.

Denbora-tarte honetan, udal-espazio publikoko edozein lekutan aparkatu ahal izango da, hau da, aparkaldiek ez dute mugarik izango.

2. Udaldia: uztailaren 1etik irailaren 8ra, biak barne).

Aldi honetan, ordenantzan zehazten diren ordu-tarteetan eta guneeetan, ezberdin erabiliko da ibilgailuak aparkatzeko eremu publikoa.

6. artikulua

1. Ordenantza betetzen dela bermatzeko, udaltzainek edo horretarako gaitutako agenteek aparkalekuak kontrolatuko dituzte, eta, arauak bete ezean, dagozkion salaketak jarriko dituzte.

2. Ondorio berberetarako, Plentziako Udalak aparkatzeko baimena duten egoiliarren datu-basea izango du, eta egoiliarrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- A) Egoiliar-baimena:

Pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta euren ibilgailuak udalerrian helbidertuta badaude, edo udalerrian erroldatutako pertsonen enpresa-ibilgailuak badira, edo udalerrian erroldatutako pertsonen kontratatuta dituzten renting edo leasing



ibilgailuak badira edo udalerriko enpresek dituztenak. Renting-kontratuetan, erroldatutakoek agertu beharko dute titular gisa.

B) Baimen berezia, alkate-udalburuak emana:

Alkatetzak emandako baimenak. Aipatzekoak dira Plentziako hirigunean dauden lantokietako langileei ematen zaien baimena, bai eta salbuespenezko bestelako baimenak ere.

7. artikulua

Udalerriko hainbat gunetan aplikatuko da Ordenantza hau. Horietako bakoitzean, seinale bertikalak jarriko dira, bai eta zoruan margotutako lerro urdinak ere (eta «R», «E» edo «Bertakoak» ere adierazita). Ordenantzaren I. eranskinean zehazten da zein diren gunekoak:

«R», «E» edo «Bertakoak» letrekin margotutako guneeetan, egoiliar-baimena dutenek bakarrik aparkatu ahal izango dute.

Aparkatzeko denbora mugatzen duten eremuak urdinez margotuta egongo dira, eta, horrela, erraztu egingo da merkataritza- eta zerbitzu-erabilerarako ibilgailuak aparkatzea (osasungintza, administrazioa, etab.).

8. artikulua

Ordenantza honek araututako gune erreserbatuetan aparkatzeko, erabiltzaileek Ordenantza honetako baldintzak bete beharko dituzte.

Egoiliarrentzat gordetako guneeetan, egoiliar-baimena duten ibilgailuek bakarrik aparkatu ahal izango dute, honako denbora-tarte honetan:

Ordenantza honek araututako gune urdinetan (txandakako aparkaldia) aparkatu ahal izateko, erabiltzaileak aparkatzea baimentzen dion dokumentua (txartela) jarri beharko du, haizetakoaren barrualdean, kanpoaldetik ondo-ondo ikusteko moduan. Udalak, agiri horiek eskuratzeko, txartel-makinak jarriko ditu.

Hona hemen gune urdinerako ezartzen diren aparkaldi mugatuak:

— Astelehenetik ostiralera: 9:00-14:00 eta 16:00-20:00.

— Larunbat eta igandeetan: 9:00-14:00

Araupeko aparkalekuetan aparkatzeko gehieneko denbora ordu 2koa da. Epe hori igarota, ezin izango da araupeko gunean berriro aparkatu 2 ordu igaro arte.

Zamalanak horretarako seinaleztatutako lekuetan eta orduetan egingo dira.

EGOILIARRENTZAKO GUNEAK

Zehaztapenak

9. artikulua

Egoiliarrentzako guneeetan aparkatzeko, Plentziako Udalak baimena emango die ondoko baldintza hauek betetzen dituzten ibilgailuei:

1. Plentzian bizi den pertsona fisiko baten jabetza izatea edo errentamendu-kontratu izatea (renting/ leasing/ enpresa-ibilgailua). Jabeak alta emanda egon beharko du udal-errodan.

Era berean, Plentzian helbidea duen pertsona juridikoa izatea, baldin eta estatu-tu eguneratuetan agertzen den zerga-helbidea udalerrian badago.

Ondorio horietarako, ibilgailuaren jabe edo titulartzat joko da Trafikoko Lurralde Burutzak emandako gidabaimenean halakotzat jasota dagoena, edo renting nahiz leasing nahiz enpresa-ibilgailu modalitateko alokairu-kontratuan titular agertzen dena.

2. Titularraren errolda-helbideak bat etorri beharko du ibilgailuaren zirkulazio-baimenean agertzen denarekin eta benetako bizilekuarekin (renting-erako, leasing-erako edo enpresa-ibilgailurako izan ezik).



3. Ibilgailuak Plentziako Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren Erroldan alta emanda egon beharko du, aurreko ataletan zehaztutako titulartasuna eta helbidea bat etorrira, eta, hala badagokio, zerga horren ordainketa egunean izan beharko du (renting, leasing-erako edo enpresa-ibilgailurako izan ezik).

Baimendunak ezin izango du eduki Plentziako Udalean trafiko- edo zirkulazio-zehapenik ordaindu gabe, eta egunean eduki beharko ditu gainerako udal-zergak eta beharkizunak.

Mugikortasun urria izateagatik aparkatze-txartela duten ibilgailuek ordenantza honen eraginpeko leku guztietan aparkatu ahal izango dute, eta ez dute baimen berezirik atera beharko.

10. artikulua

Alkate-udalburuak baimen berezia eman ahal izango du gune jakin baterako —urtebeterako edo gutxiagorako—, eta horrek ahalbidetuko du ondoko hauek aparkatzea:

- Ordezkaritza diplomatikoen ibilgailuak.
- Udal-irizpidearen arabera egoera bereziak edo salbuespenezkoak egiaztatzen dituzten ibilgailuak, bereziki Plentziako hirigunean helbidea duten enpresek kontratatutako pertsonak, baldin eta horien lan-ordutegia bat badator Ordenantzan adierazitako aparkaldi mugatuko ordutegiarekin.

Baimena lortzeko, udalerrian lan egiten duten pertsonak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Enpresako langilea dela egiaztatzen duen agiria, enpresak sinatuta.
- Lan-kontratua.
- Baimendunak, eskaera egiten duen egunean, ezin izango du eduki Plentziako Udalean trafiko- edo zirkulazio-zehapenik ordaindu gabe, eta egunean eduki beharko ditu gainerako udal-zergak eta beharkizunak.

Gainerako baimen berezietarako, berriz, alkatezak kasu bakoitzean eskatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Baimen bereziei ordenantza honetako artikuluko guztiak aplikatuko zaizkie, hala bada-
gozkie.

11. artikulua

Baldin eta betetzen ez bada Ordenantza honetako edozein artikuluko nahiz Alkate-tza-Udalburutzak horiek garatzeko ematen dituen xedapenak, trafiko-antolamenduko arauen urraduratzat joko da, eta berarekin ekarriko du dagozkion zehapenak ezartzea, finkatutako legezko prozeduraren bidez.

Honako hauek arau-haustetzat hartuko dira:

- a) Ibilgailua, dagokion baimenik izan gabe, araupeko gunean eta ordutegian aparkatzea.
- b) Ordenantza honetan ezarritako arauak behin eta berriro ez betetzea.

12. artikulua

Honako hauek arau-hauste arinak izango dira, eta zehapen hauek ezarriko zaizkie:

- 100 euroko isuna:
 - A. Dagokion baimenik izan gabe ibilgailua egoiliarrentzako gunean aparkatzea.
 - B. Dagokion txartela atera gabe gune urdinean aparkatzea.
 - C. Gune urdinean baimendutako denbora baino 60 minutu edo gehiagoz aparkatzea.
- 80 euroko isuna:
 - D. Dagokion txartela haizetakoaren barrualdean ikusteko moduan jarri gabe gune urdinean aparkatzea.



E. Gune urdinean aparkatzea, baimendutako denbora 60 minutura arte gaindituz.

12. artikuluko A, B eta C ataletan tipifikatutako arau-hausteez, trafikoa eta aparkatze-ko zerbitzu publiko arautua antolatzeke eta hobetzeko oztopo larria direnez, eta hiriko trafikoa oztopatzen dutenez, berez ekarriko dute udal-agintaritzak, hala badagokio, behar ez bezala okupatutako espazio publikoaren erabilgarritasuna berreskuratu ahal izatea. Ahalmen hori gauzatzeko, erretiratu egingo da ibilgailu hori, eta horretarako prestatutako lekura eramango da, gordailuan uzteko; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izango dagokion zehapen ekonomikoa ezartzeko, hala xedatzen baita Trafikoari, Ibilgailu Motor-dunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren 38. artikuluan.

Artikulu honetan jasotako kasuetan, ibilgailua erretiratu ahal izateko, beharrezkoa izango da 30 minutu igarotzea arau-haustea egin denetik.

13. artikulua

Ordenantza honetan aurreikusi ez direnetan, begiratuko zaio Trafikoari, Ibilgailu Motor-dunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legeari, bai eta Zirkulazio Araudi Orokorrari ere, ordenantza aplikatu eta garatzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria

Alkatetzari ahalmena ematen zaio ordenantza hau behar bezala interpretatu eta aplikatzeko behar diren agindu eta jarraibide guztiak emateko.

Bigarren Xedapen Gehigarria

Arpillaoko aparkalekuak eskuratzen dituzten pertsonak, baldin eta parking ixteak eragin badie, baimen berezia izango dute egoiliarrentzako gunean aparkatzeko, harik eta egoera hau konpondu arte. Interesdunek, horretarako, dagokion baimena eskatu beharko dute Plentziako Udalean, eta eskaeran, ibilgailuaren matrikula jasotzeaz gain, egiaztatu beharko dute emakidaren titularrak direla; nolana ere, ibilgailuak eskatzailearen titulartasunekoa izan beharko du. Horrez gain, odol-ahaidetasun edo ezkontza-ahaidetasuneko lehen mailako ahaide baten autoa ere baimenduko da, eta emakidadun bakoitzak aparkaleku bakarra erabili ahal izango du.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek hamahiru artikulua, xedapen gehigarri bi eta azken xedapen bat ditu, eta indarrean sartuko da testu osoa «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egun baliodunean.



I. ERANSKINA

Egoiliarrentzako guneak

Aparkaleku publiko guztiak, salbu-eta Errotabarri (futbol-zelaia), Txipio Bidea (etxe berdeak eta denboraldiko aparkalekua) eta txandakako gune urdinak (bakoitzaren ordu-tegiek mugatuta).

Gune urdina (txandakako aparkalekuak)

- Plazatxoak: Jai Alairen espaloia, padel-pistaraino.
- Frontoi kalea: Labastureko bidegurutzetik Areatzako bidegurutzeraino.
- Labasture: 4B zenbakitik Frontoi kalearekiko bidegurutzeraino (zenbaki bikoitiak besterik ez); eta Areatza kaletik 24. zenbakira.
- Arraun kalea, postetxearen espaloia.